

TÓDAS MULLERES
QUE COÑEZO

unha película de XIANA DO TEIXEIRO

**ZINEMA-
RAAAAAAA**

GIDA PEDAGOGIKOA

SARRERA

Zinemaraaaa Tabakalerako hezkuntza eta zinema arloak elkarlanean garatzen ari garen programa bat da. Filmek egunerokoan presente ditugun bizipen, egoera, eztabaida eta gai ezberdinak irudikatzeko gaitasuna dutela uste dugu. Aukera ematen digute elkarrizketa eta prozesu ezberdinak abiatuz, inguratzen gaituzten gaiekiko begirada kritikoa eraikitzeko. Horregatik, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle-taldeek Tabakalerako zine-aretoan ikusteko aukera izango duten film ezberdinak proposatu ditugu. Film bakoitza abiapuntu bezala hartuta esku artean duzun *Zinemaraaaa gida-pedagogikoa* sortu dugu. Bi ardatzen gurutzaketatik abiatzen da:

Alde batetik, ikusentzunezkoek munduarekiko dugun ikuspegia zabaltzeko duten gaitasunean sinesten dugu, ez bakarrik gaiei erreparatuz baizik eta forma zinematografikoari begiratuta ere. Hau da, film bat ez da bakarrik narrazioak adierazten duena, narrazioa eraikitzeko moduak berak ere (planoak, soinuak, enkoadraketa, eta abar) filma definitzen du.

FILMAREN GAKOAK

Fikzioa vs. Dokumentala

Film honek, fikzioari eta dokumentalari buruz hitz egiteko aukera ematen digu; noiz bukatzen da bat eta hasten da bestea?

Zinema dokumentalean gure inguruko gertaera eta pertsonaiak erretratatzten ditugu, ez dira ez asmatuak ez birsortuak. Film honetako elkarrizketek ez daukate gidoirik. Xianak, esperientzia propioen inguruko lagunen arteko elkarrizketak eta talde desberdinen eztabaidak grabatzeko beharra sentitu zuen, elkarrizketatutako emakumeak film indartsu honen protagonistak bihurtuz. **Pertsonala politikoa baita beti.**

Dokumental hau sortzeko Xiana zinemaren lengoaiaz eta tresnez baliatu da, izan ere, dokumentala nolabaiteko fikzioa da. Filma eraikitzeko hartu dituen erabaki guztiak -zein egoera sortu, elkarrizketa nondik eraman, kamera non jarri, enkuadraketan zer sartu, ez esaldi gehitu edo ezabatu muntaian- filmaren atzean zuzendariaren begirada dagoenaren froga dira.

Gogoan izan behar dugu lengoai-kasu honetan, zinema lengoai-inoiz ez dela neutrala. Norbere begirada edo ikusipuntua dago kontatzen edo grabatzen denaren atzean beti, sortzaileek erabakitzen baitu erretratatzten denaren garrantzia edo zerri ematen zaion ahotsa.

Zer eguneroko elkarrizketa edo egoera grabatuko zenuke zuk? Nola egingo zenuke? Nola egin du Xianak?

Kontakizun kolektiboa. Indarkeriarik gabe indarkeriaz hitz egitea, beldurra sustatu gabe beldurraz hitz egitea

Indarkeria matxistari buruz hitz egiten duen film honetan ez da irudi edo ekintza bortitzik agertzen. Belaunaldien arteko kontakizuna da eta agertzen diren emakumeek beraien bizipenaren berri emanez indarkeriaren eta beldurraren inguruko hausnarketa eragitea dute helburu. Banakako aholketatik abiatutako kontaketek kontakizun kolektibo bat eraikitzen dute. Emakume izateak dakarren beldur eta segurtasun ezaren inguruan pentsarazten du, beldurra sustatu gabe; nolabait filma bera zama bat gehiago izan ez dadin.

Nola isladatzen da genero indarkeria telebistan edo sareetan? Non jartzen da fokoa? Zer eragin du horrek gugan? Zeintzuk dira film honekin alderatuta ikusten ditugun ezberdintasunak?

Xiana, filmaren zuzendaria, kontaketa kolektiboaren parte da baita ere. Pantailan ikusten dugun protagonistetako bat da eta bere esperientziaren berri ematen digu: “esperientzia miseralde eta lotsagarriak adierazteko, partekatzeko, kolektibizatzeko, haietaz barre egiteko, festa bat egiteko eta haiengandik urruntzeko aukeratik abiatzen gara. Prozesu horrek parte hartu dugun guztioti eragin digu, eta ikustera ausaritzen den edonor gonbidatzen dugu”. Izan ere, film honetan pantailak isplu bezala funtzionatzen du, filmaren iraupenetik harago luzatzen den ariketa bat da ikuslea ere eztabaidan inplikatuz.



PERTSONALA POLITIKOA DA

Xianak filma egituratu duen moduaren bidez, sexu indarkeria eta jazarpenari buruz eraikitako narratibak ikuspegi feminista du oinarrian. Modu honek, emakumeok espazio publikoan bizi dugun beldurra termino politikoetan ulertzea garamatza. Izan ere, garrantzitsua da beldurraren inguruan eraikitako indarkeria hau genealogia baten baitan pentsatzea, norberarena den arazo personal bezala sentitu gabe. Bakarrik ez gaudela pentsatzu. Pertsonala politikoa dela ulertuz.



Simone de Beauvoir pentsalari feministak “pertsonala politikoa da” ideia garatu zuen.

Bestalde, ikus-entzunezkoen lanketarako erabili ohi den gida pedagogikoaren ideia birplanteatu nahi dugu, guztiz bideratua den dokumentuaren logikatik aldentu nahian. Hori horrela, hemen aurkezten ditugun proposamen eta ideiak abiapuntu bezala ulertuko genituzke, bakoitzak bere testuingurura egokitzuz nahi duen erara erabiltzeko aukera izan dezan. Ez da norabide bakarreko dokumentua. Hainbat proposamen pedagogiko elkar topatu daitezke film bakoitzaren lanketan, eta erabili ahala, osatzen eta ikuspegi ezberdinez betetzen doan baliabide gisa ulertu nahi dugu gida pedadogiko hau.

Ariketa xume baten emaitza da hemen jasotzen dena. Filma ikusi ostean, Xiana Do Teixeira filmaren zuzendariaren aholkuez lagunduta, zati batzuen aukeraketa eta analisia egin dugu. Hauek, ardatzak diren gaien arabera antolatu ditugu eta atal bakoitzari edukiaz, zein ikus-entzunezkoaren eraikuntzaz iruzkin bat gehitu diogu. Horretaz gain, filmaren ezaugarri orokorrak eta filmaren alderdi ezberdinekin (formalak, tematikoak...)

lotu daitezkeen beste erreferente batzuk ere gehitzen dira, horiei tiraka sakontzen jarraitu nahi duenak erabili ditzan. Gida honetatik abiatuta garatu daitezkeen jarduera ezberdinek generoaren eta indarkeria matxistaren testuinguruan espazio publikoari eta askatasunari buruzko pentsamendu kritikoa sustatzeko balio dezaketela uste dugu.

Gida honekin lanean hasi aurretik komenigarria da filma ikustea. Aukerarik izan ez baduzu, jarri gurekin harremanetan eta materiala helaraziko dizugu.


Informazio gehiagorako: hezkuntza@tabakalera.eus



Metazinema eta filmaren egitura

Filmaren planteamendu honek metazinemaz hitz egiteko aukera ematen digu. Modu simple batean azalduta, zinemaren barruko zinema dela esan dezakegu; filman bertan filmaz edo zinemaz hitz egitea. Argazki hauetan erakusketan dira bi adibide:

1. ataletik 2. atalerako jauzia:



2. ataletik 3. atalerako jauzia:



Filmak bere egituran hiru zati nabarmen ditu eta hauen bidez adierazten zaigu zein den proposatutako ariketa. Lehenengo zatia belaualdi bereko emakume talde baten arteko elkarrizketa da; filmaren oinarriako balioko duen eztabaida, hain zuzen ere. Bigarren zatian, hasierako eztabaida hori belaualdi ezberdinetako emakume talde bati erakutsi eta horren gaineko elkarrizketan oinarritzen da. Hirugarren zatian, ariketa berdina errepikatzen da (lehen eztabaidaren proiektzioa), orangoan institutu bateko ikasle talde misto batekin. Hiru zatiak elkarren segidan jarrita, pantailatik harago doan beste zati bat aktibatzen dela esan dezakegu; filman ikusten ari denarena. Ikasgelan emango den eztabaidarekin, logika hau elikatzen goazela esan gonaizake.

Ariketa hau estrukturalki interesgarria da, bisionatuak pentsamendua eta eztabaida pizten duelako. Horretaz gain, metazinemarekin lotutako beste hainbat momentu ere aurkitu daitezke filmean zehar, zuzendariak pelikula baten eraikuntza agerian uzten dituenekoak.

Filman zehar zein beste momentuk eman dezake metazinemaz hitz egiteko aukera? Zergatik izan daiteke interesgarria estrategia bezalao?

Generoa, espazio publikoa eta beldurra

Elkarrizketa da filmaren muina. Gutako bakoitzak **espazio publikoa** nola hautematen dugunaren inguruko elkarrizketa batetik abiatzen da eta behin filma bukatu denean ere eztabaida sustatu nahi du: Norena da kalea? Plaza? Eguna? Goizaldea? Aukerak? Galdera hauen erantzuna **generoak** zeharkatzen du. Femeninotzat hartzen dena espazio publikoan sartu daiteke, baina beti arrotzasun batetik eta prezio batekin: **beldurra** pasatzea. Ardatz hauetatik abiatzen dira landu ditugun gaiak.

Noiz sentitzen dugu beldurra espazio publikoan? Uste duzu generoak baldintzatzen duela sentazio hau?

FITXA TEKNIKOA

XIANA DO TEIXEIRO, ESPAINIA, 2018, 71’ DCP JB GALIZIERA-EN-ES, AZP. EU

Zuzendaria: Xiana Do Teixeira
Gidoia: Xiana Do Teixeira
Argazkigintza: Belén Mendaña, Noemí Chantada
Muntaia: Xiana Do Teixeira
Soinu zuzendaria: Iria Otero, Leticia Fernández
Produkzioa: Uxia de Buciños eta Nóvoa, Xiana do Teixeira
Nazionalitatea: Espainia
Ekoizpen urtea: 2018
Iraupena: 71min

SIPNOSIA

Pertsonaletik politikora, hainbat emakumeren bizipenek agerian uzten dute zenbateraino den maskulinoa eta bortitza kalea gaur egun. Laguneekin, kideekin eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin izandako hiru elkarrizketa esanguratsuen bidez, zuzendariak beldurra sustatuko ez duen beldurraren inguruko diskurtsoa egituratzeko saiakera egin du; bortitza izango ez den indarkeriari buruzko diskurtsoa. Zinema zuzena eta horizontala, autokritika eta kontakizunaren haustura. Sororitate unibertsalari buruzko istorioa.

ASKATASUNA


Filmari hasiera ematen dion aipu bisual bat da pasarte hau. Zatikitutako pantailan, Nina Simone agertzen da eta bere ahots eta irudiaren koordinazioarekin jolasten da. Soinua alde batetik doa eta irudia bestetik. Kamera geldoan Nina Simoneren gorputz atal eta keinu ezberdinetan jartzen da fokoa esaten ari den hori intensifikatuz. Berarentzat aske izatea ezberdinetan jartzen da fokoa esaten du. Ez dabil edozein beldurretaz, emakume bezala egiturazko modu batean guregan dagoen beldurraz ari da, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun sozialarekin lotura duen horretaz.

0:00:00 - 0:01:11

- Zer da zuretzako aske izatea Nina? Nina Simone: Aske izatea?

[...]

Nina Simone: Badakizu zer den niretzako aske izatea? Beldurrik ez izatea! Benetan, beldurrik ez izatea!



“Askatasuna vs. Askatasunak” ideia aurkezten zaigu. Pertsonak askeak gara eta gure burua asketatuz jotzen dugu, gure generoa alde batera utzita? Edo askatasun bat dago maskulinoarentzat eta beste bat femeninoarentzat? Guzti honetaz hitz egiteko, Xiana esperientzia pertsonaletik abiatzen da: “txikitatik biktima gisa hezia izatearen bidegabekeriak bultzatu ninduen filma hau grabatzera, bizitza ahalik eta libreena izango zela pentsatzen nuen une batean”.

Filmaren hasieran, lagunarteko giro intimu baten babespean, emakumeetako batek beldurra eragin dion jazarpen esperientzia baten kontaketa egiten du. Filmaren abiapuntua den emakume talde baten elkarrizketaren hasierako zatia da.

0:01:11 - 0:03:16

Filmaren lehenengo zati honetan, bizipen ezberdinen inguruko deskribapen oso zehatzak aurketzen dira grabaketa modu berezian.

Gutxienez bi kamera dabilta grabaketa lanetan, plano-kontraplano bidez taldean dagoen eztabaida kontatzeko. Badirudi kamera eskuan darabilten kameralariak zirkulu berean daudela. Barrura sarrarazi eta taldean bertan kokatzen gaituzte. Grabaketarako estrategia hauek pantailan gertatzen ari denera gerturatzen gaituzte eta kontatzen ari direnarekiko identifikazioa sortzen da. Hala ere, inork ez du kamerarekin edo kameralariarekin hartu-emanik; kontatzen zaiguna taldea osatzen duten emakumeen artean dagoen elkarrizketaren bidez kontatzen da. Bakoitzak gaiarekiko duen

BELDURRA KONTROL MEKANISMO BEZALA

0:04:39 - 0:05:05

- Tira, errealitate bat da eta zirkulatzen duen kontakizun bat ere bada. Izan ere, emakume askori eraso egiten zaie... Baina beste askori ez...
- Kondaira bat ere bada.
- ... Baina bizipen horrekin bizi gara...
- Gaita daitekearen tentsioa!
- Edozein momentutan gertatu daitekeenaen egoeran.

0:07:52 - 0:08:45

Zeintzuk (trenak) garamatzate segurtasun mental handiagora eta zeintzuk paranoia gehiagotara?

0:24:36-0:26:07

[...]

Beti daukat hori gogoan, badakizu?

Nire askatasuna mugatzen du.

[...]

- Zerbait gerta dakizukeela...

[...]

- Mutilek ez dute horretan pentsatzen, ezta? Esan nahi dut, guk espazioa irabazi behar dugu. Zure espazioaren alde borrokatu behar duzu, zure espazioa irabazi...

0:31:03 - 0:31:48

Ez dakit nori entzun nion, emakume izateagatik biktima potentzialak gara eta gizon izateagatik erasotzaile potentzialak dira.

ikuspegia ematen du batak besteari hitza zapalduz eta jarrera honek naturaltasuna ematen dio kontaketari.

Gehienetan kamera hitza duen personarengan kokatzen da. Hala ere, kontaketak irudiak baino garrantzi handiagoa duela adierazten dugu, zakarra den enkuadraketak. Kontaketan dago marmia, ez horrenbeste erakutsen zaigun irudian.

0:18:36-0:20:27

Eta zuek, horrelako une batean zaudetenean, zehazki erasoan pentsatzen al duzue? Hau da, zer gertatu daitekeen pentsatzen duzue? Ez modu abstraktuan, “erasotu diezadakete” benetan imajinatzen duzu erasoa zure gorputzean?

0:35:36-0:37:10

Eta bi mutil horiek bila etorri zitzaizkidan... losatu egin nintzen ez zelako ezer gertatu.

[...]

Gogoan dut beraiekin etxeratzea barre urduri batekin: “Barkatu, zein tuntuna naizen...” Eta errudun sentitzea, atzetik etorri eta labana atera zidan tipo baten kontuaz kezkaturik baino...


0:27:06-0:29:57

“Beatriz, zuk ez dakizu mutilek beharrizanak dituztela?”

- Amak esan zizun hau?

- Hau esan zidan!

- Eta mutil batekin camping dendan lo egiten baduzu bere beharrak onartzen ari zara!



0:41:58 - 0:43:35

Beldurra gauza bat da, behar dugun sentimendu bat, baina zerbait zehatzarekiko. Baina, esan nahi dudana da; mugatu egiten gaituena, baldintzatu egiten gaituena, edo, behintzat, niri, zerbait zehatzugabearen beldur bat da, ukiezina, izu abstraktu bat bezalakoa... Ikasia, badakit ikasitako zerbait dela, emakume izateagatik irakatsi zidatela.

0:52:09 - 0:52:42

Emakumeok beldurra, tristura, pena... sentitzeko hezituta gaude, amorrua sozialki legitimogaa da gizonentzat. Eta amorrua da jardunarazten zaituena. Interesgarriena hori da: hor guggan lotuta dagoen beldur hori amorruan transformatzea.

16 de diciembre, Álvaro Gago, Espainia, 2019, 16’

A Girl Walks Home Alone at Night, Ana Lily Amirpour, AEB, 2014, 100’

Beyond clueless, Charlie Shackleton, Erresuma Batua, 2014, 89’

Espace, Eléonor Gilbert, Frantzia, 2014, 15’

Las lindas, Melisa Liebenthal, Argentina, 2016, 77’

Las once, Maite Alberdi, 2014, Txile, 70’

Suc de sindria, Irene Moray, Espainia, 2019, 22’

Una película dramática, Eric Baudelaire, Francia, 2019, 114’

^[1] Oso interesgarria iruditu zait famili-eremuari buruz esaten zenuena, familia-eremua islaslanaren eta ukazioaren beste gorua bat bezala. Ez dakit eskola, adibidez, gaur hemen ere ukazio piska bat bazegoen ezta? Mundu guztiak berdina izan beharko lukeenaren diskurtso horren pean...